

**Tradiciones y leyendas populares del país basco.**

**LIGIKO ZUBIA.**

(TEXTO ORIGINAL SULETINO)

Ligiko jentek bazien aspaldian zubi baten beharrunia. Bena etzen ihour ere ausartzen lau haren hastera lekhia gaisto zelakoz.

Egun batez hitzartu zien behar ziela zubi hori Lamignez egitera eman. Deitzen ditie herrila eta erraiten dere bere ezin bestia.

Lamignek hitzemaiten dere zubiaren egitia harri phikatuz biharamen gaian oillarrak khantatu heno lehen, bena galtho eginen derenaren pian.

Ligiarrek erraiten dere: «Zer da zuen galthoua?»

Lamignek arropostu: «Ligiko neskatilarik ederrena dugu galthatzen phakutako.»

Nahi bada pena handia egiten zeren herritarrer neskatila eder haren galtziak, halarik ere houn hartzen die Lamiñen galthoua eta biharamen gaian horik hasten dira lanian.

Mundu orok dakian bezala neskatila ederrek badie lekhu orotan arrakasta. Ligiko neskatila eder harek ere bazian bere maite khorte egiten zeron.

Maite hori, beitzakian zer zabilan, jarten da biharamen gaian Lamiñen lankhiaren khantian eta ikhousten du laxeriareki dembora erdi gabe lana bertan akabtzekoua zela. Ari zen penxamentuka, mina bihotzian, izerdi hotz batek harturik, nouiz ere gagouata jiten betzaio gaiza bat.

Jouaiten da oillantegi baten khantila, emeki hanko bortha zabal-tzen du eta bere eskiez egiten du laur edos bost zafia oillarrak khantu benu lehen hegal khaldu emaiten tianak bezala. Oillarra iratzar-tzen da jauzi bateki, loxaz berantu din, eta hain sarri egiten du: «*Kukurruku.*»

Ordu zen, Lamiñek azken harria erditan gora altchaturik zien, bena entzun zienian oillarraren khantoria aurthiki zien harri hora houren behera eta herox handi bateki ezkapi ziren erraiten zielarik: «Dela maradikatia oillar hori zouñek egin beitu bere oihia thenoria beno lehen.»

Gerostik, diroe zaharrek, ez harri aurthiki hora ez besterik eztie ihourk ere lelkhuhuts hartan ekhura erazi ahal ukhen.

(*Trascrito de memoria por M. Garat, de Gotein.*— CERQUAND, XLIII.)



## LE PONT DE LINCQ.



(VERSION LITERAL FRANCESA.)

Lss gens de Licq avaient depuis longtemps besoin d' un pont. Mais personne n' osait entreprendre ce travail, parce que l' endroit était mauvais.

Un beaujour ils décidèrent qu' il fallait donner ce pont à faire aux Lamignac. On les appelle au pays, et on leur dit l' extrémité où l' on se trouvait réduit.

Les Lamignac promettent de faire le pont en pierres de taille, pendant la nuit du lendemain, avant que le coq ait chanté, mais à condition qu' on leur donne ce qu' ils se proposent de demander.

Les gens de Licq leur dirent: «Que demande vous donc?, Les Lamignac répondirent. Nous demandons pour paiement lu plus belle fille de Licq.»

Certes, cela faisait de la peine aux gens du pays de perdre cette fille; ils accueillirent cependant la demande des Lamignac, et, dans la nuit du lendemain, ceux-ci se mirent au travail.

Comme tout le monde le sait, les belles filles en tous lieux sont recherchées. Cette belle fille de Licq avait, elle aussi, son amoureux qui lui faisait la cour. Cet amoureux, sachant ce qui se passait, se poste le lendemain soir piés du chantier des Lamignac et voit avec terreur que le travail vu être achevé avant la moitié du temps fixé. Lecœur tourmenté, pris d' une sueur froide, il se met à réfléchir tant et si bien, qu' une idée lui vient à l' esprit.

Il va vers un poulailler, en ouvre doucement la porte et fait avec les mains quatre ou cinq fois un bruit pareil à celui que fait un coq avant de chanter. Le coq du poulailler se réveille en sursaut, craignant d' être en retard, et tout de suit fait: «*Coquerio!*»

C' etait le moment où les Lamignac soulevaient à moitié de sa hauteur le dernière pierre; mais des qu' ils entendirent le chant du coq, ils jetèrent cette pierre à l' eau et s' échappèrent à grand bruit en disant: «Maudit soit ce coq, qui a fait son cri avant l' heure!»

Depuis lors, disent les vieux, personne n'a pu faire tenir dans la place vide ni cette pierre jetée en bas, ni d' autres.

(J. VINSON.- *Le folk-lore du pays basque*.- Contes merveilleux, VI.)

